ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko azaroaren 30a, asteazkena • 134 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ERRIBERABEITIKO UDALA

**Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 2016koa, ordaintzeko epea irekitzea**

Jendaurrean jartzen da ireki dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko ordainketak egiteko aldia.

I. ORDAINTZEKO EPEA

Borondatezko epea: 2016ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra.

B) Premiamendu aldia 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekargua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, 28. artikulua).

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da kobratu beharrekoa 2016ko azaroaren 25ean kobratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek, borondatezko epean, Kutxabanken Ribavellosako bulegoan egin dezakete ordainketa, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:00etara; baita udal bulegoetan ere, jendaurreko ordutegian, kreditu txartelarekin, eta banku transferentzia bidez Erriberabeitiko Udalak daukan kontu mugatu honetan: 2095 3253 11 1095223573.

III. GOMENDIOAK

Bankuko helbideratzeetan alta eman edo aldaketarik egin bada, edo aurrerantzean jakinarazpenak egiteko helbidea aldatu bada, Erriberagoitiko Udalean horren berri emateko izapidea egin behar da: San Martin plaza,1, Rivabellosa.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Rivabellosa, 2016ko azaroaren 1a

*Alkatea*
*PEIO RUIZ GARCIA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.12.01 00:00:47 Z